

PRENTSA-OHARRA

HERRIZAINGO SAILAK MARTXOKO HAUSTESKUNDEEN EPEEN 2500 EGUTEGI INGURU BANATU DITU

Errolda Udaletxe eta Kotsulatueta jarriko da ikusgai urtarrilaren 12tik 19ra bitartean

Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Saileko Hauteskunde Prozesu eta Dokumentazio Zuzendaritzak 2500 egutegi inguru banatu ditu, martxoaren 1ean ospatuko diren Eusko Legebiltzarrerako hurrengo hauteskundeen jarduera, data eta epeekin.

Dokumentazioa EAEko alderdi politikoei, Hauteskunde Batzordeei, euskal Udalei, Foru Aldundiei, Administrazio Zentralari, komunikabideei eta Eusko Jaurlaritzari berari bidali zaie. Halaber, aipaturiko egutegia www.elecciones.net web orrian agertuko da kontsultatzeko.

Hauteskunde egutegian deskribaturiko epeen artean nabarmena da hauteskunde errolda urtarrilaren 12tik 19ra bitartean Udaletxe eta Kotsulatueta ikusgai jartzearena.

Hauteskunde prozesuan esku hartuko duten pertsona guztiei epeen eta martxoaren 1eko hurrengo hauteskunde ekonomikoetan izango den hauteskunde prozeduraren jarduera adierazgarrienen ezagutza erraztea da Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Saileko Hauteskunde Prozesu eta Dokumentazio Zuzendaritzak ezarri duen helburua, hurrengo hauteskunde egutegia editatzean.

*Egutegiak grafikoki eta hainbat koloretan hauteskunde jarduera garrantzitsuenak aurkezten ditu; martxoaren 1ean EAEko 760 hauteskunde eskoletan jarriko diren gutxi gorabehera 2700 hautestontzietara joan ahal izango diren euskal **hautesle**ei zein Udalei, Eusko Jaurlaritzari, Hauteskunde Administrazioari, Epaitegiei, alderdi politikoei eta Estatuko Hauteskunde Erroldaren Bulegoari eragiten dien beren data eta epeekin.*

Hautesleriak errolda ikusgai izango du Udaletxeetan eta Kotsulatueta urtarrilaren 21etik 26ra bitartean, biak barne. Denbora tarte horretan, hautesleriak Hauteskunde Errolda Bulegoaren Probintzia Ordezkaritzaren

aurrean erroldako bere sartze edo kanpoan uzteari buruzko erreklamazioak aurkeztu ahal izango ditu. Ordezkaritzak hiru egun ditu erreklamazio bakoitza aurkeztu denetik berau ebazteko eta egun bat gehiago erreklamazioa egin duen pertsonari, Udalei eta Kontsulatuei jakinarazteko. Zuzenketak urtarrilaren 23an jarriko dira jendaurrean.